

9. Ibilbidea
"SIERRA SALVADA"KO
GAILURRERIA
LENDONJO GOIKOA



Pausuz pausu Orduña



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Kultura Saila


IBILBIDEA



"Sierra Salvada"ko gailurria-Lendoño Goikoa

19 Kms.

Ibilbidearen urratsak



INTERES GUNEAK

- | | |
|--|---|
| 1 Aterpetxea. | 7 Solayera mendia. |
| 2 Igeltsu harrobia. | 8 Bedarbide mendia. |
| 3 "La Antigua"ko Santutegia | 9 "Cueva Llana". |
| 4 Txarlazo mendia."La Antigua"ko Birjiniaren oroigarria. | 10 Tologorri mendia. |
| 5 "Sierra Salvada". Kare-harkaitzak. | 11 Zidor Beltza. |
| 6 Txolope mendia. | 12 "Txosna Iturria" jolas-gunea. Dolmena. |

Zehazketa

«La Antigua»ko santutegiraino, igeltsu harrobitik eta «Teta Iturria» jolas-gunetik igarotzen den bidetik jaisten gara. Jainkotegi atzetik, errepidea zeharkatzen duen eta pagadi estu azpian Txarlazo mendirantz zuzen-zuzenean igon egiten den markaturiko oiharbidea hartzen dugu.

«Gualdetxu iturria» hatzemana, eta Ama Birjiniaren ataka igarota, ezkerretatik Txarlazo mendirantz igotzen gara, Mendizerrako kare-harkaitzen eta Urduñako diapiroaren ikuspegi zabala begi bistan daukagularik.

Berriro ere atakarantz zuzentzen gara; igarotzen dugu eta labarraren ertzatik zuzen Txalope mendiraino igotzen jarraitzen dugu.

Hemendik, gure ibilaldiari haitz-ebaketaren ertzarekin paraleloki garraizkio, lehenengoz «Solayera» mendiraino eta gero «Biderbide»raino. Alanbrada albotik igarotzen den bidezidorrari jarraituz, «Cueva Llana» deritxon lezeraino helduko gara, non arkeologi aztarnategi bat aurkitu bait da.

«La Barrerilla»ko ataka aurkitu arte, bidetik jaisten gara. Puntu honetan Tologorri mendi hurbilera igonez, ibilbidea amaituzat emateko aukera dugu. Halan eta guztiz ere, ataka berorretatik Lendoño Goikoraino heltzen den «Zidor Beltza» izenekotik jaitsi beharko dugu.

Lastondia igaro eta gero, bidezidorra pagadi eder baten azpian doa eta markaturiko zabaltasun nahikoko oiharbide bihurtzen da; honek errepidera eramango gintuzke, baina hara heldu baino metro batzuk aurrerago, eskuinetara bira egiten dugula, bide bat hartzen dugu. Alanbrada zeharkaturik, hartxirrizko beste oiharbide nagusi bat hatzematen dugu. Hemen, berriro ere, bira eginez Txosnako Iturriraino hurbilduko gara. Atakaren ondoan aurkitzen den Dolmeneraino, bidetari Garraizkiola beharitzen gara. Aterperainoko itzulera errepidetik egingo dugu.



Solayera mendia. ►

O

R

D

U

Ñ

A